

# ISLADA LAGUNTZA --- ENPRESA AKTIBOA



**EGILEAK:** Eider Mendizabal, Eider Arrizabalaga, Nerea Martin, eta Asmaa Roufani

**2020 URTEA**

---

# IDEIA

Hasteko, esan beharra daukagu brainstorming bat egin genuenean, ideia asko atera zirela eta zalantzak izan genituela aukeratzeko orduan. Bestalde, ohartu ginena izan zen, kolektiboari laguntza emateko ideiak zirela; hau da, denak zutela ezaugarri hau, gizarteari laguntasuna emateko alegia.



Hasierako ideia etorkinetan oinarritu genuen. Izan ere, inklusioan gizarteratzeko baliabidea eskaintzea izango zen gure helburua; hau da, bai osasunean, hezkuntzan zein lan arloan bideratzeko laguntza eskaintzea. Ondoren, zerbitzu honen eskaintza zabaltzea pentsatu genuen, aniztasun funtzionala duten pertsonekin pentsatuz. Honek, oso kolektibo handi batera eraman gintuen eta ohartu ginen ez ginela gai, eta ez pertsona nahikoa kopuru horri aurre egiteko. Gainera, horrek baliabide falta eta ekonomia arazoak baitzekartzan.

Beraz, ideia baztertu eta berriro brainstorming-era jo genuen. Horretarako, lehen aipatutako printzipioari eutsi genion, laguntza ematea, hain zuzen ere. Beraz, hurrengoko ideia honako hau izan zen; ISLADA laguntza enpresa aktiboa sortzea. Izan ere, gaur egun gizartean azalean dauden arazoak anitzak baitira. Adibidez, drogamenpekotasuna, haurrenganako axolagabekeria, familia desegituratuak, haurren heziketan gabeziak ...